

# ADIN-TXIKIKOEN AURKAKO INDARKERIA ETA/EDO BABESGABETASUN EGOERETAN JARDUTEKO JAKINARAZPEN IBILBIDE EGITURATUA (JIE)

ESKU501b0377-3045-4fdb-9fdb-17e3353d666f

**Azpeitia**  
Denontzat

	<b>ZER</b> da Jakinarazteko Ibilbide Egitaratua (JIE)?	<b>02</b>
	<b>ZERGATIK</b> da beharrezkoa tresna hau?	<b>04</b>
	<b>NORTZUK</b> dute jakinarazteko eginbeharra?	<b>07</b>
	<b>NOIZ</b> Jakinarazi behar da egoera bat?	<b>11</b>
	<b>NOLA/NORI</b> Jakinarazi behar dira informazioak?	<b>14</b>
	<b>ERANSKINAK</b> Tresna praktikoak	<b>20</b>

01

ZER

da Jakinarazteko Ibilbide Egitaratua (JIE)?



Arau-garapen berriek (bai Europan, bai Estatuan, bai gure Autonomia-Erkidegoan bertan ere) **berehalako erantzun koordinatua eta kalitatezkoa** ematera behartzen gaituzte, **adin txikikoenganako indarkeriaren edo babesgabetasunaren susmoen aurrean**.

Hori, aurrerago ikusiko dugun bezala, **eragile guztien ardura bada ere, eskumen eta erantzukizun berezikoa da Udaleko Gizarte Zerbitzuentzat**, informazio-bilketa, balorazioa eta esku-hartzea koordinatzeko ardura bait daukagu.

### Zer da dokumentu hau?

Dokumentu honek **tresna praktiko eta erraza izan nahi du** Azpeitiko udalerriko eragile ezberdinek (osasan-arloko profesionalak, udal-langileek, hezkuntza-eragileek eta gizarte-zerbitzuetako, aisialdiko, kiroleko eta kulturako arduradunek edota herritarrek) **antzeman ditzaketen indarkeria- edo babesgabetasun-kasuen komunikazioa errazteko**, eta **sistema eta tresna partekatua izatea ahalbidetu nahi du**, Azpeitiko udalerrian sektoreen artean modu koordinatuan eta komunean jarduteko.

### Zein dira dokumentu honen helburuak?

Azpeitiko Udalak bultzatutako **Jakinarazpen Ibilbide Egitratu (JIE)** honek, udalerriko agente guztiei jakinarazpen horiek errazteko sistema egituratua izan nahi du. Zehatzago esateko, **bi beharri** erantzun nahi die:

- ➔ Alde batetik, Azpeitiko udalerrian adin txikikoekin lan egiten duten agenteen erantzuna erraztea, legeek (Euskal Herrikoek zein Estatukoek) indarkeria- edo babesgabetasun-kasuen jakinarazpenari dagokionez eskatzen dutenari erantzuteko.
- ➔ Bestetik, **tresna erraza eta praktikoa izatea Azpeitian jarduerak koordinatzeko** eta, horrela, Udaleko Gizarte Zerbitzuen **erantzun komuna eta egituratua lortzeko** (horiek arduratzen direlako informazioa biltzeaz, balorazioaz eta koordinazioaz, legediaren arabera), eragile guztien laguntzarekin.

### Nola egin dugu dokumentu hau?

Oinarrizko testua lantzeko, metodologia parte-hartzaileak erabili dira. Zehazki, **4 lantalde** egin dira (saio desberdinekin, egun eta ordutegi anitzetan, parte hartzea errazteko), eta horietan **araudiak ezarritakoa Azpeitiko hainbat sektore-eremutan adin txikikoekin lan egiten duten eragileen beharrekin eta proposamenekin kontrastatu** da.

Parte-hartu duten pertsonak, bai **egitura publikokoak** (udalerrikoak edo beste administrazio eta sektore batzuetakoak, baina nagusiki udalerrian lan egiten dutenak), bai **gizarte-ehuneko elkarteak** izan dira.



Udalak eskerrak eman nahi dizkie prozesuan parte hartu duten **65 pertsona baino gehiagori**, haien lanketa gabe prozesu hau ez bait zen posible izango:

**UDAL EUSKALTEGIA-GAZTERIA-GIZARTE ZERBITZUAK-HEZKUNTZA-KIROLA-KULTURA-PAREKOTASUNA-UDALTZAINGOA-AZPEITIKO ANBULATORIOA-IKASBERRI IKASTOLA-IRAURGI IKASTETXEA-UROLA IKASTOLA-URRESTILA HAURRESKOLA-KATEKESIS-HARRERA ETXEA-XAPUTARRAK XAKE TALDEA-ARTE ETA DISEINU-LAGUN ONAK TXIRRINDULARITZA ELKARTEA-ARETO FUTBOL TALDEA-LAGUN ONAK FUTBOL TALDEA-IRAURGI SASKI BALOIA-LORETOKI GIMNASTIKA KIROL KLUBA-JUAN ANTXIETA MUSIKA ESKOLA-ILUNPE PILOTA ELKARTEA.**

**Eskerrik asko!**

## 02

## ZERGATIK

### da beharrezkoa tresna hau?



Azken urteetan **haurren eta nerabeen arloan garatutako araudi aldaketei erantzuna emateko** gauzatzen da dokumentu hau. Araudi aldaketa horiek Nazioartekoak, Estatuakoak eta Erkidegokoak izan dira. Estatu mailan, 8/2021 Lege Organikoa, Haurren eta Nerabeen Indarkeria Aurkako Babes Integralaren Legea (LOPVI) aipatu dezakegu. Baina, batez ere, ibilbide honek **Euskal Autonomi Erkidegoko 2/2024 Legeak, Haurren eta Nerabeen Legeak ezarritako funtsezko bi eremuri erantzun nahi dio:**

- ➔ Adin-txikikoekin harremanetan dauden agenteen konpromiso eta inplikazioa. Izan ere, **babesgabetasun- eta/edo indarkeria-egoerak izan ditzaketen haur eta nerabeen kasuen jakinarazpena egiteko betebeharra dute agente hauek.**
- ➔ **Gizarte-zerbitzuen erantzukizuna** balizko babesgabetasun- eta/edo indarkeria-egoera horri buruzko **informazioa biltzeko eta baloratzeko** orduan.

### Zergatik erabili behar da JIE hau?

Garrantzitsua da herritarrek, eragileek eta adin-txikikoekin lan egiten duten eta haiekin harremanetan dauden pertsonak protokolo hau ezagutzea eta erabiltzea, arrazoi hauengatik:

- ➔ **Legeak** adin-txikikoen aurkako babesgabetasun- eta/edo indarkeria-egoera susmagarriak **jakinarazteko betebeharra ezartzen** duelako, bai herritar guztientzat, bai haur eta nerabeekin harremanetan dauden **istema publikoko** (edo beste eremu batzuetako) **persona eta eragileentzat.**
- ➔ Adin-txikikoenganako babesgabetasuna eta/edo indarkeria susmatzen den kasuetan **Udaleko Gizarte Zerbitzuen erantzukizuna eta eskumena delako informazioa biltzea, balioestea eta sektoreen arteko lan koordinatua egitea**, nahiz eta beste sektore batzuek (osasuna edo hezkuntza, esaterako) **beren jarduera-protokoloak izan.**
- ➔ **Informazio susmagarrien berri emateko prozesua ahalik eta gehien errazteko**, betetzeko oso **ibilbide erraza eta azkarra diseinatu baita**, aplikatzeko baliabide praktikoak barne, dokumentu honen eranskinetan aurki daitezkeenak.

### Zer dio zehazki araudiak?

#### Printzipio nagusiak.

2/2024 Legeak, Haurren eta Nerabeenak, haurrak eta nerabeak babes behar duten pertsonak izateaz gain, **eskubide eta betebeharrak propioak ere badituztela adierazten du**, gizarte egitura izan beharko luteken balioa aintzatetsiz. Bestalde, azaltzen du **haien**

**ongizatea ez dagoela soilik familiaren menpe**, baita bizi eta hazten diren **beste espazio batzuei lotuta** ere, hala nola eskola, osasun-sistema, justizia, gizarte-zerbitzuak edo aisialdia.

Horregatik, **funtsezkoa da ingurune horiek seguruak, inklusiboak eta partehartzaileak izatea**. Hori lortzeko, legeak bereziki espazio anitz hauetan jardutearen garrantzia adierazten du, **indarkeriaren eta babesgabetasunaren prebentzioan arreta jarri, ikuspegi zabal eta komunitario** batetik.

#### Komunikatzeko betebeharra.

Espazio seguru horiek lortzeko eta ikuspegi komunitarioa garatzeko, legean "*bereziki lantzen da pertsona adin-txikikoekiko indarkeria- edo babesgabetasun-egoerak komunikatzea*". Eta hori gauzatzeko "*administrazio publiko eskudunek mekanismo eskuragarri, egoki eta konfidentzialak, ahal dela elektronikoak, eskaintzeko betebeharra ezartzen da, egoera horiek komunikatu ahal izateko eta informazio egokia modu arin eta seguruan eman ahal izateko*". Azpeitiko udalerrirako egindako **ibilbide honek modu zuzenean erantzuten dio Legeak markatutako alderdi honi**.

#### Herritar eta eragileen erantzukizuna.

Legeak erdigunean jartzen duen ikuspegi komunitarioak **eragin zuzena du udal eremuan**, ez bakarrik udalarentzat, baizik eta Azpeitian **haur eta nerabeekin lan egiten duten pertsona, erakunde eta profesional guztientzat** ere, parte haz dezaketen edozein ingurunetan.

Izan ere, Legeak bere I. Tituluko II. Kapituloan (batez ere 16. eta 17. artikuluetan) komunikazioen betebeharra (**herritarrentzat**) eta komunikazio kualifikatuaren erantzukizuna (**eragileentzat**) arautzen ditu. Gainera, 19. artikuluan argi ezartzen du **adin-txikikoek** eskubidea dutela beren buruari edo beste batzuei eragiten dieten indarkeria- edo babesgabetasun-egoerak jakinarazteko, bai zuzenki, bai beste agente batzuen bidez.

2/2024 LEGEAK, HAURREN ETA NERABEENA  
I.TITULOA. II. KAPITULOA. KOMUNIKATZEKO EGINBEHARRA ETA INFORMAZIOA ISILEAN  
GORDETZEKO EGINBEHARRA

16. artikulua.– Herritarrek komunikatzeko duten eginbeharra.  
17. artikulua.– Komunikatzeko eginbehar kualifikatua  
19. artikulua.– Pertsona adingabeek komunikatzea.

#### Gizarte Zerbitzuen eskumena eta erantzukizuna.

Azkenik, nabarmendu behar da adin-txikiko baten aurkako **indarkeria egoeraren baten susmoak izatean edota babesgabetasun egoera bat identifikatzean**, egoerak **jakinarazteko betebeharrak** azpimarratzeaz gain, Legeak ezartzen duela **informazioa biltzeko eta balorazioa egiteko erantzukizuna, Udal Gizarte Zerbitzuei dagokiela**.

Era berean, Legeak adierazten du inplikaturik egon daitezkeen **gainerako sektoreekin koordinatu beharko dela, eta laguntza eskatu** ahal izango diela beharrezko informazioa biltzerakoan (hezkuntza, justizia, herritarren segurtasuna edo osasuna barne). Horretarako, **agintaritzaren agentetzat hartuko dira Gizarte Zerbitzuak**. Honek honako hau esan nahi du:

- ➔ Bere jardunek **egiazkotasun-presuntzioa** dute prozedura administratibo eta judizialean.
- ➔ Bere eginkizunak betetzen dituen bitartean, **eraso, mehatxu edo derrigortzeen aurrean babes juridikoa indartzen da.**
- ➔ Haurren eta nerabeen eskubideen defentsan betetzen duten **eginkizun instituzionala aitortzen da.**

#### **146. artikulua. Gizarte-zerbitzuen jarduketak.**

1.– Udaletako gizarte-zerbitzuek, haur eta nerabeen kontrako indarkeria-kasu posibleren bat jakinarazten badiete edo zuzenean detektatzen badute, haren inguruko informazioa bildu eta dagokion balorazioa egin beharko dute, ahal den guztietan, diziplinartekotasunez eta lurraldean dauden osasun-, hezkuntza- zein segurtasun-erloto eta arlo judizial eta fiskaleko talde eta profesionalekin, baldin eta horiek pertsona adingabearen egoerari eta familia- eta gizarte-inguruneari buruzko informazioa eman ahal badute.

4.– Beren lanbide-jarduera gizarte-zerbitzuetan egiten duten funtzionarioak, pertsona adingabeen kontrako indarkeria-egoeretan beren eginkizunak betetzeko, agintaritzaz- agente izango dira, eta jarduketa hauek egin ahal izango dituzte:

- a) Ertzaintzaren, Udaltzaingoaren, Fiskaltzaren, osasun-zerbitzuen, ikastetxeen eta beharrezkotzat jotzen duten edozein zerbitzu publikoren laguntza eskatu ahal izango dute, pertsona adingabearekin edozein testuingurutan elkarrizketatu ahal izateko, eta haren gurasoen, legezko ordezkarien edo harreragileen eta zaintzaileen baimenik behar izan gabe.
- b) Beharrezkotzat jotzen dituzten presazko neurriak eskatu ahal izango dizkiote dagokion agintaritzaz judizialari.

5.– Era berean, gizarte-zerbitzuetako profesionalek, beharrezkotzat jotzen badute, osasun-zentro batera lagundu ahal izango diote pertsona adingabeari behar duen arreta jaso dezan. Ondoren, legezko ordezkari edo harreragile edo zaintzaileei



#### **INFORMAZIO GEHIAGORAKO:**

[2/2024 LEGEA \(HAUR ETA NERABEENA\)](#)


[152/2017 DEKRETUA \(BALORA\)](#)

03

## NORTZUK dute jakinarazteko eginbeharra?



Adin-txikikoen aurkako indarkeria- eta/edo babesgabetasun-egoera susmagarriak jakinarazteko betebeharrari dagokionez, aurretiaz aipatu bezala, 2/2024 Legeak bi profil ezberdin bereizten ditu. Batetik, herritarren betebeharrak, oro har informazioa ematea; eta bestetik, sektore publikoko agente jakin batzuenak, edo haurrekin eta nerabeekin zuzenean lan egin zein harramantzen diren agenteenak.



### Herritarrek komunikatzeko duten eginbeharra

2/2024 Haur eta Nerabeei buruzko Legeak 16. artikuluan arautzen du zer kasutan jardun behar dugun (aurrez aurreko eta online egoerei buruzko informazio kezkarriak barne) eta zer ekintza mota hartu behar ditugun, bai eta informazio hori nori zuzendu behar diogun ere:

#### 16. artikulua.– Herritarrek komunikatzeko duten eginbeharra.

1.– Pertsona adingabe baten kontra sortutako indarkeria-egoera posible baten zantzuak antzematen dituen edo horren susmoak dituen pertsona fisiko edo juridiko orok, edo, hala badagokio, pertsona adingabe bat babesgabetasun-egoera posible batean dagoela detektatzen duenak, berehala komunikatu beharko dio eskumena duen agintaritzari, hargatik eragotzi gabe behar duen berehalako sorospena ematea.

2.– Komunikatzeko betebeharrak hori ere badago, halaber, sare sozialetan edo Interneten haurren eta nerabeen kontrako indarkeria diren edukiak eskuragarri daudela hautemandakoan.

3.– Egitateak delitu izan badaitezke, Ertzaintzari, Udaltzaingoari, Fiskaltzari edo agintaritzari judizialari komunikatu beharko die, hargatik eragotzi gabe biktimari behar duen berehalako arreta ematea.

4.– Zehazki, detektatutako egitateek babesgabetasun-egoera posible bat dagoela adierazten badute, berehala komunikatu beharko die udaletako gizarte-zerbitzuei, kalterik egin gabe Fiskaltzari horren berri emateko aukerari.

5.– Edozein kasutan, jakiten bada pertsona adingabe bat eskolatu gabe dagoela edo justifikaziorik gabe eskolara ez dela joan ohi nahitaezko eskolaldian, Hezkuntza Administrazioari jakinarazi beharko dio, kalterik egin gabe gizarte-zerbitzuei horren berri emateko aukerari.

## Komunikatzeko eginbehar kualifikatua. Nortzuk?

Aurrekoaz gain, bere 17. artikuluan, Legeak arautzen du **pertsona jakin batzuek**, beren **karguagatik, lanbideagatik edo eginkizunengatik, ogibideagatik edo jardueragatik** adin-txikiko bati eragindako indarkeria-egoera baten edo balizko babesgabetasun-egoera baten berri dutenean, **komunikazio kualifikatua egin beharko** dutela:

### Oro har

Agintariek, Enplegatu publiko guztiek eta edozein herritarrek

### Hezkuntza

Zentro publiko eta pribatuen irakasle eta ez irakasleek

### Kirola, Kultura, Aisialdia

Udal instalazioetako eta erakundeen langileek

### Herri Zaintza

Herritar segurtasuneko / babes zibileko langileek

### Osasuna

Arlo publiko eta pribatuko langileek

### Gizarte Zerbitzuak

Udal/Aldundiko zerbitzuetakoek

**Azpeitiko kasuan, besteak beste, hurrengo esparruak eta agenteak nabarmendu ditzakegu:** Gizarte langileak, Udaleko Esku-hartze sozioedukativo eta psikosozial taldeko profesionalak, "Emakumeen txokoa"-ko pertsonala, Azpeitiko harrera etxeko profesionalak, Osasun Zentruko Pediatrak, Azpeitiko ikastetxeetako edozein langile, Gazteria eta astialdi zerbitzuko profesionalak, Gazteleku, Ludoteka edota Musika eskolako langileak, Udaltzaingoako taldea, Azpeitiako agintariak, edozein funtzionario edo langile publiko eta oro har, edozein herritar...

### Zer dio legeak zehazki?

Xehetasun gehiago izateko, hauxe da 2/2024 Haur eta Nerabeen legeak dioena:

#### 17. Artikulua. Komunikatzeko eginbehar kualifikatua

1. Aurreko artikuluan ezarritako komunikatzeko eginbeharra bereziki eskatuko zaie pertsona hauei, baldin eta, beren kargua, lanbidea edo eginkizunak, ogibidea edo jarduera direla-eta pertsona adingabearen kontra sortutako indarkeria-egoera baten berri badute, edo pertsona adingabe horren babesgabetasun-egoera posible baten berri badute:
  - a) Agintariei eta enplegatu publikoei.
  - b) Ertzaintzako eta Udaltzaingoko kideei.
  - c) Gizarte-zerbitzuetako langileei
  - d) Osasun-zerbitzu publiko eta pribatuetako osasun-langileei.
  - e) Ikastetxeetako irakasleei eta irakasle ez diren langileei; eta, bereziki, ongizate eta babeserako koordinatzaileari.
  - f) Babesgabetasun-egoeran dauden pertsona adingabeentzako egoitza-harrerako baliabideetan lan egiten duten pertsonari, eta zigor-legearekin gatazkan dauden pertsona adingabeentzako zentroetan lan egiten dutenei.

- g) Pertsona adingabeak egon ohi diren edo aldi baterako dauden establezimendu publiko edo pribatuetan lan egiten duten pertsonen.
  - h) Pertsona adingabeak dituzten asiloa eta arreta humanitaria emateko harrera-zentroetan lan egiten duten pertsonen.
  - i) Adingabeekin gorputz-hezkuntzako edo kiroleko jarduerak egiten dituzten zentro, entitate eta ekipamendu publiko zein pribatuetan lan egiten duten pertsonen.
  - j) Adingabeekin aisia-jarduerak egiten dituzten zentro, entitate eta ekipamendu publiko zein pribatuetan lan egiten duten pertsonen.
  - k) Haurren eta nerabeen eremuan prebentzioarekin, arretarekin eta babesarekin zuzenean lotutako eginkizunak betetzen dituzten zerbitzu publiko eta pribatuetan lan egiten duten pertsonen.
2. Aurreko apartatuan aipatzen diren pertsonen pertsona adingabearen kontrako indarkeria egoera baten berri badute edo horren zantzuak badituzte, edo babesgabetasun-egoera posible batenak, berehala komunikatu beharko diete eskumena duten gizarte-zerbitzuei.
  3. Halaber, indarkeria horren ondorioz haur edo nerabearen osotasuna, osasuna edo segurtasuna arriskuan egon badaiteke, berehala komunikatu beharko diote Ertzaintzari edo Udaltzaingoari, bai eta Fiskaltzari ere.
  4. Era berean, Datuak Babesteko Euskal Agintaritzari komunikatu beharko dizkiote, berehala, pertsona adingabe bati buruzko edo haren eskubideei eragiten dieten datu pertsonalak babesteko araudiko arau-hauste posibleak.
  5. Edozein kasutan, osasun-langileek berehala ezagutaraziko dizkiote agintaritzari judizialari, zuzenean edo Fiskaltzaren bitartez, pertsona adingabearen bizitza edo osotasun fisikoa edo psikikoa babesteko beharrezkoak diren tratamendu medikoei uko egin zaien egoerak. Aldi berean, esku mena duen foru-aldundiari jakinaraziko dizkiote egoera horiek, eta hark baloratuko du beharrezkoa den ala ez judizialki hartzen diren neurriez gain beste esku-hartze gehigarriarik egitea.
  6. Haurdun dauden emakumeen kasuan, baloratzen bada haurtxoaren jaio ondorengo segurtasun-baldintza oinarrikoak eta osasuna arrisku handian daudela, eta haurdunaldiko jokabideen ondorioz haurtxoak argi eta garbi arriskua badu gaixotasun edo anomalia fisiko, mental edo sensorial larriak jasateko, zuzenean jakinaraziko zaio haurrak eta nerabeak babesteko eskumena duen foru-aldundiko lurralde-zerbitzuari, hargatik eragotzi gabe Fiskaltzari jakinaraztea.
  7. Edozein kasutan, artikuluko honetako 1. apartatuan aipatzen diren pertsonen berehala eman beharko diote pertsona adingabeari behar duen arreta, eta eskura duten informazio guztia eta ahalik eta laguntzarik handiena eman beharko diete eskumena duten agintari edo organoei.
  8. Arestian aipatutako ondoretarako, eskumena duten administrazio publikoek mekanismo egokiak ezarriko dituzte indarkeria edo babesgabetasun-egoeraren baten biktima diren pertsona adingabeen kasuen susmoak jakinarazteko, eta esku hartu behar duten profesionalen artean informazioa trukatzeko.

**Adin-txikikoen zuzenean zein heldu baten bidez informatu dezakete?**

**Bai. 2/2024 Legeak horrela esplizituki aitortzen du** 19. artikuluan, eta ezartzen du zuzenean (lehenengo pertsonan) edo haien konfiantzazko hirugarren baten bidez (gurasoak, zaintzaileak edo berak aukeratutako beste edozein pertsona) informatu ahal izango dutela beren buruari edo beste adin-txikiko batzuei zuzenean eragiten dien indarkeria- edo babesgabetasun-egoera bati buruz.

Horregatik, profesional edo herritar moduan **gure lankidetzak eskatzen badigu adin-txikiko batek**, informazio-prozesuan laguntzera behartuta egongo gara, baldin eta **jakinarazpen prozesu horrek ez badu arriskuan jartzen bere segurtasuna edo interes gorenekoa**.

Halaber, legearen oinarrien arabera, **hezkuntza-, kirol-, aisialdi-, kultura- edo egoitza-babesaren sektoreetako profesionalak** adin-txikikoei haien eskubidea betearazteko beharrezko informazio eskaini beharko die.

#### **19. artikulua.- Pertsona adingabeek komunikatzea.**

1.- Indarkeriaren biktima diren edo beste pertsona adingabe baten kontrako indarkeria-egoeraren baten lekuko diren pertsona adingabeek, baita babesgabetasun-egoeran daudela uste dutenek edo beste pertsona adingabe bat egoera horretan dagoela susmatzen dutenek ere, horren berri eman ahal izango diete udaletako zein lurraldeetako gizarte-zerbitzuei, Ertzaintzari edo Udaltzaingoari, bai eta Fiskaltzari ere, zuzenean, gurasoan edo zaintzaileen bitartez edo hautatzen duten beren konfiantzako beste pertsona baten bitartez, betiere ez bada ikusten hori beren interes gorenerako arrisku bat izan daitekeenik.

2.- Komunikazio hori errazteko, Eusko Jaurlaritzak, gizarte-zerbitzuen arloan dituen eskumenak erabiliz, haurren eta nerabeen eskura jarriko du orientazio-, aholkularitza- eta informazio-zerbitzu telefoniko edo telematiko konfidentzial eta anonimo bat, baita informazio- eta salaketa-mekanismo edo -kanal seguru, konfidentzial, eraginkor, egokitu eta irisgarriak ere. Zerbitzu hori herritarrek haren berri izateko moduan publikizatu beharko da, eta koordinatu egin beharko da eskumena duten zerbitzu, sistema eta administrazio publiko eta erakundeekin, haurren edo nerabearen babes eraginkorra bermatzeko behar diren baliabideak aktibatzeke.

3.- Lege honen 134. artikuluan aipatzen diren prebentzio-jarduketan esparruan, ikastetxeek beren ikasleei azalduko diete nola komunika ditzaketen eskolan, bai eskola-ordutegian, bai eskola amaitu ostean, edo eskolatik kanpo ikusi dituzten indarkeria-egoerak.

4.- Kirol-erakundeek eta aisialdi hezigarrirako eta denbora libreko erakundeek, lege honen 136. artikuluan aurreikusitako prebentzio-jarduketan esparruan, informazioa emango diete pertsona adingabeei ikusten dituzten indarkeria-egoerak nola komunika ditzaketen jakinarazteko.

5.- Pertsona adingabeen ohiko bizitoki diren establezimendu publiko edo pribatuek zentroan aplikatzen diren indarkeria-egoerak komunikatzeko prozedurei buruzko informazio guztia emango diete pertsona adingabeei bertara sartzen direnean, baita eremu horretako arduradunei buruzkoa ere. Informazio hori etengabe egongo da eguneratuta. Halaber, beharrezkoak diren neurriak hartu beharko dira pertsona adingabeek informazio hori edozein unetan libreki kontsultatu ahal izateko.

6.- Nolanahi ere, aurreko apartatuan azalduko aplikatuko zaie barnetegi-araubideko plazak dituzten ikastetxeei, haurren eta nerabeen babesaren eremuko egoitza-harrerako zentroei, askatasunaz gabetzen duten neurriak betetzeko eta heziketa-taldeko bizikidetzarako heziketa-zentroei, edo pertsona adingabeei egoitza-arreta ematen dieten bestelako zentroei

# 04

## NOIZ

### Jakinarazi behar da egoera bat?



Aurrez aipatutako legeriak eta bereziki 2/2024 Legeak, Haurren eta Nerabeenak, adierazten digu bi egoera motatan jakinarazi behar direla susmoak:

- ➔ **Indarkeria susmoak** daudenean.
- ➔ **Babesgabetasun** egoera baten **susmoak** antzematen direnean.



### INDARKERIA susmoak

#### Zer da indarkeria? Nola identifikatu? Zeintzuk dira indarkeriaren tipologiak?

Adin-txikikoen aurkako indarkeriaren definizioa asko arautu da lege ezberdinetan (nazioartekoak, estatukoak eta Erkidegokoak) eta **persona bati kalte fisikoa, psikologikoa, emozionala edo soziala eragiten dion edozein ekintza, jokabide edo ez egite (omisioa) bezala defini daiteke.**

#### INDARKERIA SUSMATZEKO ADIERAZLEAK

Indarkeriatzat jotzen da adingabeak beren eskubideez eta ongizateaz gabetzen dituen ekintza, ez-egite edo tratu zabar oro, baldin eta adingabe haien garapen fisiko, psikiko edo sozial ordenatua mehatxatzen edo oztopatzen badu, indarkeria hori gauzatzeko modua eta bitartekoa gorabehera

#### FISIKOA

Gorputz zigorrak, kolpeak, kalte fisikoa eragiten duen edozein ekintza



01

#### MATXISTA

Emakume izateagatik emakumeen aurka erabilia. Aurreko edozein motatakoa izan daiteke



05

#### PSIKOLOGIKOA

Intimidazioak, umiliazioak, garapen emozionala kaltetzen dituzten ekintzak



02

#### DIGITALA

Ziberjazarpena, sextortzioa, teknologia bidezko edozein jazarpen



03

#### ESPLOTAZIOA

Esplotazioa sexuala, laborala edota adingabeen legez kanpoko esplotazioa



04

## Non dago araututa honen lege-oinarria?

Zehazki, Erkidegoko Hautzaroari eta Nerabezeroari buruzko 2/2024 Legeak honako hau ezartzen du 11. artikuluan:

*“Indarkeriatzat joko da Espainiako Estatuak berretsitako nazioarteko itun eta hitzarmenen arabera heldu batek edo pertsona adingabe batek egindako ekintza, ez-egite edo zabarkeriazko tratu oro, baldin eta pertsona adingabeak beren eskubideez eta ongizateaz gabetzen baditu, eta, betiere, haien garapen fisiko, psikiko edo sozial ordenatua mehatxatzen edo oztopatzen badu, edonola eta edozeren bidez eginda ere, harremanaren, informazioaren eta komunikazioaren teknologien bidez egindakoa barne, bereziki indarkeria digitala, eta noizbehinka, eskuarki nahiz modu jarraituan, familia barruan nahiz kanpoan, gertatuta ere”*

*“Edozein kasutan, indarkeriatzat joko dira tratu txar fisikoak edo psikologikoak; zigor fisikoak, umiliagarriak edo laidogarriak; arduragabekeria edo zabarkeriazko tratua; mehatxuak, irainak eta kalumniak; esplotazioa; sexu-indarkeria; sexu-erasoak eta -abusuak; ustelkeria; prostituzioa; sexu-esplotazioa, sexu-jazarpena, eskola-jazarpena eta ziberjazarpena; emakumeen genitalen mutilazioa; gizakien salerosketa, edozein helburutarako izanik ere; haur-ezkontza; haur-pornografia eta onartu edo eskatu gabe pornografia atzitzea; genero-indarkeria; emakumeen kontrako indarkeria matxista; gorroto-delituak; sexu-estortsioa; datu pribatuak jendaurrean zabaltzea, sexu-indarkeriako datuak barne; bai eta haien familia-eremuan indarkeriazko edozein portaera izatea ere”*

*“Sexu-indarkeriatzat jotzen da sexu-izaerako edozein ekintza onartu gabea, edo bizitza sexualaren garapen librea baldintzatzen duena edozein eremu publiko edo pribatutan, eremu digitala barne. Nolanahi ere, sexu-izaerako ekintzatzat jotzen dira Zigor Kodeari buruzko azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoaren II. liburuko VIII. tituluan jasotako delituak, hots, emakumeen mutilazio genitala, ezkontza behartuak, konnotazio sexualeko jazarpena eta sexu-ustiapenera bideratutako gizakien salerosketak”*

## Zer egin behar dut indarkeria egoera baten eta bere tipologien aurrean?

Adierazitako definizioan eta sailkapenean oinarrituta adin-txikiko baten aurka eragindako **indarkeria egoera baten susmoa** edo zantzuak daudenean (zuzeneko seinaleak, adintxikikoaren adierazpenak, jokabidearen aldaketak edo seinale fisiko edo emozionalak) **jakinarazteko** betebeharra ezartzen da.

## BABESGABETASUN susmoak


### Zer da babesgabetasuna? Nola identifikatu? Zeintzuk dira babesgabetasun motak?

Babesgabetasunak **haur edo nerabe baten zaintzaz arduratzen diren pertsonen ekintza edo ez egiteren (omisioaren) ondorioz, adin-txikikoaren beharrak** (zaintza, segurtasuna, afektua, hezkuntza edo osasuna) ) **behar bezala estaltzen ez direnean** gauzatzen da. Horrelako egoeretan, beraz, babesgabetasun arrisku edo egoera baten aurrean egongo gara.

Oinarritzko premiak **hainbat motatakoa izan daiteke** (fisikoak, emozionalak, kognitiboak, sozialak, sexualak, etab.), eta hauek behar bezala ez estaltzeak ez ditu beti berehalako kalte argiak eragiten, baina haur eta nerabeen ongizaterako eta garapenerako arriskua suposa dezakete. Kasu horietan, beharrezkoa da esku hartzea egitea haien eskubideak bermatzeko eta larritasun handiagoko egoerak prebenitzeko, hala nola abandonua edo tratu txarrak.

## BABESGABETASUNA SUSMATZEKO ADIERAZLEAK

Babesgabetasuna pertsona adingabe baten egoera bat da, legezko ordezkariak, harreragileak edo zaintzaileak dagozkien hazkuntza-eginbeharrak ez betetzeagatik edo behar bezala ez betetzeagatik edo bete ezin izateagatik sortua. Egoeraren larritasunaren arabera, pertsona adin gabea arrisku- edo desanparo-egoeran egon daiteke.



### Non dago araututa honen lege-oinarria?

Zehazki, Erkidegoko Haurtzaroari eta Nerabezeroari buruzko 2/2024 Legeak honela definitzen du babesgabetasuna 158. Artikuluan:

**158 art. Haur eta nerabeen babesgabetasuna eta babesgabetasunarekiko zaurgarritasuna**  
Babesgabetasuna pertsona adingabe baten egoera bat da, legezko ordezkariak, harreragileak edo zaintzaileak dagozkien hazkuntza-eginbeharrak ez betetzeagatik edo behar bezala ez betetzeagatik edo bete ezin izateagatik sortua. Egoeraren larritasunaren arabera, pertsona adin gabea arrisku- edo desanparo-egoeran egon daiteke. Arrisku-egoerari dagokionez lege honen 176 eta 177. artikuluetan ezarritakoa eta desanparo-egoerari dagokionez lege beraren 187 eta 188. artikuluetan ezarritakoa aplikatuz.

Eta adin-txikikoen babesgabetasunik ba ote dagoen eta, hala badagokio, zer tipologia eta larritasun-maila duen balioesteko, Balora tresna dugu.

*BALORA aplikazio-eskumena Udaleko Gizarte Zerbitzuena eta Foru Aldundiena da Euskal Autonomia Erkidegoan. Tresna hau 230/2011 Dekretuaren bidez (EHAA, 2011/12/12), 2011n onartu zen eta 152/2017 Dekretuaren bidez, 2017an eguneratu egin zen. Haur eta Nerabeei buruzko otsailaren 15eko 2/2024 Legeak BALORA tresna berrikusteko eta eguneratzeko beharra ezartzen du, bai eta haurren eta nerabeen aurkako indarkeriari aurre egiteko protokolo sektorialak ere.*

### Zer egin behar dut babesgabetasun egoera bat dagoela susmatzen badut?

Adierazitako definizioan eta sailkapenean oinarrituta, adin-txikiko batenganako babesgabetasun egoera baten susmoa edo zantzuak daudenean jakinarazteko betebeharra ezartzen da.

05

## NOLA/NORI

Jakinarazi behar dira informazioak?



Lehenik eta behin, kontuan izan behar dugu **larrialdi-egoera baten aurrean gauden ala ez, jakinarazpen-bideak aldatu egiten bait dira**. Ez da beharrezkoa horri buruzko balorazio sakon bat egitea (eskumen eta erantzukizun hori Gizarte Zerbitzuen Sistemari bait dagokio), baina hala ere **ibilbide honetan informazioa ematen da lehenengo bereizketa** bat egiteko. Nolanahi ere, **zalantzaren aurrean, hobe da premiazkotzat jotzea, badaezpada ere**.



**PREMIAZKOA/LARRIADA**  
(KASUAK BEREHALAKO  
ARRETA BEHAR DU

- Osotasun fisiko eta psikologikoa arriskuan dagoen egoera bat identifikatzen denean.
- Segurtasun-kidegoen, zerbitzu medikoen, suhiltzaileen edo arreta psikosozial berehalako esku-hartzea behar duenak.
- Larrialdiko babes, osasun-arreta, ostata/etxebizitza edota esku-hartze psikosoziala jasotzea justifikatzen duenak.



**PREMIAZKOA/LARRIA**  
(KASUAK EZ DU BEREHALAKO  
ARRETARIK BEHAR)

- Egoerak ez badu arriskuan jartzen adin-txikikoaren osotasun fisikoa edo bizitza
- Ondorioz, kasuak berehalako arreta (segurtasunakoa, medikoa, suhiltzaileena eta/edo larrialdietako talde psikosozialena) eskatzen ez badu.

### LARRIALDI KASUAK

#### Nola dakigu gizarte-larrialdiko egoera baten aurrean gaudela?

Adin-txikiko baten bizitza edo **osotasun fisiko eta psikologikoa arriskuan dagoen egoera bat identifikatzen denean, funtsezkotzat jotzen da berehala jardutea**. Detekzio hori **hainbat iturritatik etor daiteke**, hala nola osasuneko, hezkuntzako eta gizarte-zerbitzuetako profesionaletatik edo arrisku-zantzuak ikusten dituen komunitateko kideengandik. **185/2015 Dekretuak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoak, horrela definitzen du:**

*"Gizarte larrialdiko egoera izango da aurreikusi ez den gertakari batek eragin duena, dela naturala edo probokatutakoa, **ahalmen pertsonalei, bizitzeko baliabideei eta gizarte eta familia harremanei edo sareei kalte eragin, eta horiek konprometitzen dituena. Gertakari horren ondorioz, pertsonak babesgabetasun larrian geratuko dira, eta esku-hartzeak berehalakoa eta ezinbestekoa izan beharko du. Egoera horretatik eratorritako behar sozialak Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistematik bideratuko dira, egoera larritu ez dadin eta kalte handiagorik eragin ez dezan**".*

Araudiak, **larrialdiko arreta definitzeko lau lehentasun ezartzen ditu**: 1) **laguntza eta babesa** behar izatea; 2) **larrialdiko osasun-arreta** behar izatea; 3) **larrialdiko ostata edota etxebizitza** behar izatea; 4) **larrialdiko laguntza psikosoziala eta/edo lehen laguntza psikologikoak** behar izatea.

### Nola jokatu behar dugu larrialdiko jakinarazpena egiteko orduan?

Prozesu honek jarraian aurkezten diren urratsak jarraitzen ditu:



## PREMIAZKOA/LARRIA BADA (BEREHALAKO ARRETA BEHAR DU)

1



### DEITU UDAL GZ / 112 (SOS DEIAK)

Egoera ikusi / susmoak eduki bezain pronto

2



### ARDURADUNEEI BERRI EMAN

Beti ere egoera eragin ez dutenak badira

3



### JAKINARAZPEN FITXA BETE

Lehenbailehen, xehetasunik ez ahazteko

4



### DEITU UDAL GIZARTE ZERBITZUAK

943 157 192

5



### BIDALI FITXA BETETA

[gizarte@azpeitia.eus](mailto:gizarte@azpeitia.eus)

6



### BILERA EGIN

Udal Gizarte Zerbitzuekin

Udal Gizarte Zerbitzuak edo 112 deitu.

Egoera jakinarazteko, behin larrialdia detektatuta, lehenengo urratsa lehenengo urratsa babes-sistemarekin harremanetan jartzea da. Hori bi eratakoa izan daiteke, egunaren eta orduaren arabera:

- **Laneguna** bada (astelehenetik ostiralera) **8:00etatik 14:00etara**, **Azpeitiko Udaleko Gizarte Zerbitzuetara** deitu behar da zuzenean (**943 157 192**).
- **Ordutegi horretatik kanpo edo asteburuetan** bada, **112 zenbakira deitu** behar da.

Zerbitzu honetako talde profesionalak kasua baloratuko dute, eta, kritikoa izanez gero, honako baliabide hauek aktibatzeke gaitasuna izango dute: **Segurtasun** kideak, zerbitzu **medikuak** edo **suhiltzaileak** edo Gipuzkoako Foru Aldundiak **Gizarte Larrialdietako** duen Zerbitzua (besteak beste, **arreta psikosoziala** beharrezkoa izatekotan).

Dena den, **hautemandako egoera delitua izan badaiteke, hori jakinarazteko 112 deitu behar da beti**, hargatik eragotzi gabe biktimari behar duen berehalako arreta ematea, **2/2024 Legeak ezartzen duen moduan**:

*"Egitateak delitu izan badaitezke, Ertzaintzari, Udaltzaingoari, Fiskaltzari edo agintaritzari judizialari komunikatu beharko die, hargatik eragotzi gabe biktimari behar duen berehalako arreta ematea" (2/2024 Legea - 16. Artikulua -- Herritarrek komunikatzeko duten eginbeharra)*

**Adin-txikikoen arduradunei berri eman (kalte egoera eragin dutenak ez badira).**

Ahal bada, ahalik eta lasterren jakinarazi behar zaie adin-txikikoen arduradunei (gurasoak, tutoreak, legezko arduradunak, etab.)

Hori **bakarrik egin behar da horiek egoeraren erantzuleak ez badira** (adibidez, babesgabetasunaren arduradunak edo erasotzaileak). Arduradun bat baino gehiago izatekotan, kalte-egoeraren erantzule izan ez direnei jakinaraziko zaie. Adibidez, erasoaren erantzulea aita bada, amari jakinaraziko zaio.

**Informazioa bildu jakinarazpen-fitxaren bidez.**

Gizarte Zerbitzuak edo 112 deitu eta -kasua bada- arduradunei **jakinarazi ostean, hauren indarkeria edo babesgabetasun kasuen jakinarazpen-fitxa osatuko da**. Fitxa hau dokumentu honen amaieran **erantsi da (baliabide praktikoen eranskinean)**. Fitxa hau betetzea **garrantzitsua** da arrazoi hauengatik:

- ➔ **Informazio nahikoa biltzeko eta harremanetarako datuak izateko**, ostean informazio gehiago bildu beharko balitz ere.
- ➔ Udaleko **Gizarte Zerbitzuek informazioa biltzeko eta kasua baloratzeko** eta ondoren egin behar duten **agenteen koordinazio-lana** erraztuko duelako, Haur eta Nerabeei buruzko 2/2024 Legean ezarritakoaren arabera.
- ➔ Aurretiazko helburuak lortzeko, informazioa **era sistematizatu eta homogeen** batean erraztuko baitu.

Garrantzitsua da **lehenbailehen betetzea**, jakinarazi beharreko ekintza edo gertaera ikusi ondoren. Horrela, **errazagoa da xehetasunik ez ahaztea** eta bildutako informazioa osatuagoa eta zehatzagoa izatea.

#### JAKINARAZPEN FITXAREN ESTRUKTURA

Oso fitxa erraza eta argia da, eta, bertan, kasua baloratzeko behar-beharrezkoa den informazioa baino ez da eskatzen. Zehazki, hurrengo eskatzen da:

##### Datuak:

- Egoera jakinarazten duen pertsonakoak
- Adingabearenak
- Arduradunarenak

#### Deskribapenak:

- Arduradunaren ezagutza eta erreakzioa
- Jakinarazpenaren arrazoiak
- Noiztik/Zer maiztasunekin ezagutzen da egoera
- Informazio osagarriak, horiek egotekotan.

#### Udaleko Gizarte Zerbitzuak jakinaraztea:

**Hurrengo egun baliodunean, Azpeitiko Udaleko Gizarte Zerbitzuekin harremanetan jarri beharko da.** Prozesu hau hiru urratsetan egingo da:

- ➔ Lehenik eta behin, **943 157 192 telefonora deitu egoeraren berri emateko (aldeaz aurretik haiekin hitz egin behar, 112 deitu bada)**. Dei horretan, kasua jasoko duen pertsonak jarraitu beharreko urratsei buruzko beharrezko informazioa emango du beti, baita eskatutako dokumentazioa eta deribaziorako ezarritako prozedurak ere.
- ➔ Bigarrenik, dei horretan **aurrez aurreko bilera bat finkatuko da** xehetasunak helarazteko.
